

BERTAKOA ETA ESKURA

Behin-behinean, baina martxan da Azoka Plaza berria. Saltoki iraunkorra izango da proiektuaren nobedade nagusia 20

HORTZ INPLANTE
ETA PROTESIETAN
ADITUAK GARA.


I N N O V A
HORTZ KLINIKA



*Zatoz gure erakusketa
berria ikustera!*



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00

ESKELA ZERBITZUA uztarria.eus -en



Carmona Ehorztetxea

Pablo VI, 7

**Asteko egun guztietan
24 orduko zerbitzua**

Telf: 943 15 15 14

Mobila: 629 43 42 67

30€

uztarria

zerbitzua eta berrak euskaraz

Uztarria

Perez Arregi 1, behea

Astelehenetik ostiralera,

09:15-13:15

15:00-19:00

Telf: 943 15 03 58

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 198.a (2017ko urria)
Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
 uztarrria@uztarrria.com
Bazkideztza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileru
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Maialen Etxaniz
Webgunea.
www.uztarrria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Oharra. Uztarrriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

||| 2017KO URRIKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||



iritzia

Inkesta. Zein izan da zineman ikusi duzun azken filma? **13**

mamia

Elkarrizketa. Donamariako karmeldarren komentuan bizi da Olatz Garmendia **04**
Klik! Badira bilduma bereziak osatzen dituzten herritarrak **16**
Bada surferako afizioa. Hainbat azpeitiar joaten da kostaldera, surfa egitera **24**

jakiteko

Atzera begira. Ederti dekorazio dendak mende erdia bete du **34**

Ba al dakizu hirugarren mailako Lagun onak-Anaitasuna derbia urriaren 22-23 asteburuan izango dela? **Uztarrria**

Izan uztarriaren bazkide 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

1.060 bazkide **30** euro dira urtean. gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

OLATZ GARMENDIA

moja

“Egun jendea ez dago bizimodu honetarako”

Malerreka eskualdean, Donamariako komentuan, darama ia mende erdia. Klausuran bizi bada ere, badu kanpoan gertatzen denaren berri. 📧📷 Julene Frantzesena

Duela ia mende erdia, 19 urterekin, joan zen Donamariara (Nafarroa) Olatz Garmendia. Karmeldarrek han duten komentuan sartu zen klausuran, eta hango Ama Nagusi ere izana da hainbat urtez.

Zergatik moja eta klausuran?

Beti izan naiz oso umezalea, eta sasoi hartan Azpeitian esklabak, jesuitinak, miseriak... zeuden. Ordurako, ordea, bazen eskolak emateko edo gaixoak zaintzeko titulua zuen jendea, eta kontenplari izatea aukeratu nuen. Klausurako moja esaten diegu kontenplariei, baina hori gure bizimodurako baldintza bat da, ez da gure funtsa. Jainkoari nire bizitza eskaintzea erabaki nuen, bere

alde egitea, berarentzat bizitzea, eta hor bilatu nuen funtsa. Karmeldar izatea aukeratu nuen gure etxean horien tradizio handia zegoelako: osaba bat karmeldarra zen eta anaia ere bai, gero utzi bazuen ere.

Eta nolatan Nafarroara?

Gipuzkoan ere baziren karmeldarren komentua, hala nola Donostian, Zarautzen eta Azkoitian. “Azkoitia ez behintzat”, esaten nuen neure artean; hurrunago joan nahi nuen. Anaia karmeldarra zen orduan, eta hark esan zidan Donamariara joatea gomendatu ziola fraide batek, “haiek irekiagoak” zirela eta. Horregatik etorri nintzen hona, baina nik ez nuen Donamaria ezagutzen, ez nekien non zegoen ere.

|||DATUAK|||||

|||**Jaio.** 1948ko abenduaren 11.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizitokia.** Donamaria (Nafarroa).

|||**Lanbidea.** Moja.

49 urtera hor jarraitzen duzu. Zer moduz?

Kontenplariak gara gu, eta, normalean, ez dugu komentuz aldatzen. Badira bestelako kasuak ere, baina ez gaituzte tokiz aldatzen. Gustura nago hemen, Nafarroako herri txiki polit honetan.

Nola oroitzen dituzu hasierako urteak?

Ahizpak-eta txikiak ziren, eta asko kostatu zitzaidan haiek uztea. Gogor samarra izan zen, baina komentuan oso ondo hartu nintzen bertara. Poztasunak hartu nin-

duen, eta oroitzen onak ditut. Oso bertakotuta nago.

Zer esan nahi du klausurak?

Jainkoarekin harreman berezi bat daukagu guk, eta komentuan dugun giro berezia zaintzeko itxitura bat dago. Garai batean zorrotza zen oso, baina, gaur egun, asko normaldu da. Lehen, hesiak genituen komentuan, leiho txikiak zituen eraikinak... Egia esan, hasieran, asko kostatu zitzaidan klausuraren baldintzetara ohitzea, baina bokazio hori nuen, jainkoarentzat bizi nahi nuen. Gaur egun, askok ez du sinetsiko hori badenik zerbait, hori gezurra dela esango dute, baina uste dut jainko bat badela, eta testigantza hori emateko sartu nintzen Donamarian.



Nolakoa da zure egunero-koa?

Hiru ardatz ditu gure bizimoduak: lana, elkarbizitza eta otoitza. Jainkoari eskaintzen diogu gure bizitza, baina *mama goxua* ez datorkigu zerutik, lana egiten dugu. Enkoadernaketa lanak egiten ditugu, maindireak edo baserritar jantziak josten ditugu, ostatu ematen diegu otoitz egitera edo hausnartzera datozenei... eta egiteko horiekin lortzen dugu laguntza pixka bat. Gainera, baratzea, oiloak nahiz fruitu arbolak ditugu. Egunean hainbat otoitzaldi egiten dugu, meza izaten dugu... Bazkariak, adibidez, isilik egiten ditugu normalean, baina urtebetetzeak, jaiegunak edo bestelako festak ditugunean, hitz egiten dugu. Arratsaldean moja guztiok elkar-tzen gara, *errekreoa* deitzen diogu tarte horri [kar, kar, kar], eta geure kontuez edo irratian-eta entzundakoez hitz egiten dugu.

Klausuran egonagatik, ez zaudete mundutik aparte?

Ez, ezta gutxiago ere. Interneteko sarbidea dugu, irratia ere bai, egunkaria erosten dugu...

Halere, klausura isolatuta egotearekin lotu ohi da.

Bai, garai batean askoz ere itxia-koak ziren eta ginen, nahiz eta karmeldarrak ez garen itxienetakoak. Lehen, herriko konturen batzuk eta gutxi gehiago jakiten zen komentuetan. Denborarekin, aurreratzen ari gara.

Donamariako herritarrekin harreman berezia duzue. Jaietan bisita egiten dizuete, besteak beste.

Ez dira egunero gugana etortzen, baina oso harreman ona daukagu herritarrekin. Egun jakinetan etortzen dira: haurrak jaiotzen di-

renean, ezkontzen direnean, jaietan, Gabonetan... Adibidez, Olentzeroren kalejira komentua- ren aurretik pasatzen da, eta gu atarira irteten gara *Olentzero* abestera. Urte Berri egunean, ber- ruz, umeak urtatzak biltzen aritzen dira etxe etxe, eta egiten digute bisita. Inauterietan herritarrek mo- zorro-tuta etortzen dira guk ikus ditzagun. Bestalde, abuztuko he- rriko festetan ohitura bilakatu da herritarrek komentura etortzea. Aurtengo bisitako bideok, gaine- ra, sarean ibili dira bolo-bolo, ika- ragarria izan da. Hamabost urte badira festetan bisita egiten hasi zirela, eta orain festetako egita- rauan ere sartzen dute hitzordua: mojei bisita.

Bertsoz eta kantuz pasatu zenuten bisita.

Hemendik bertsolari onenak pa- satu dira: Maialen Lujanbio, Se- bastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sarasua... Bertso oso politak abesten dizkigute. Zerua, jainkoa eta denak aipatzen dituzte, eta oso ederra izaten da. Aurtengo jaietan Onintza Enbeita eta Oihan- na Iguaran etorri ziren, eta txundi- tuta gelditu ziren giroarekin. He- rriarekin hartu-eman oso ona dugu, asko errespetatzen gaituz- te, maite gaituzte.

Zer harreman duzu sorteriarekin, Azpeitiarekin?

Orain dela gutxi izan nintzen hor. Gogoeta Astea izaten da Loiolan urtero, eta hara gonbidatu nindu- ten hitzaldi bat ematera. Goiz ba- tean solasaldia eskaini nuen, eta arratsaldean otoitzaldia egin ge- nuen bertan. Behin joanda, ordea, aste guztia pasatzea erabaki nuen, eta halaxe ibili nintzen. Fa- miliakoekin eta lagunekin pasatu nuen astebete, giro ederrean.

IKA Instalakuntza Elektrokoak
 argi lanak s.l.
 Urkez: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
 ikaargi@lanak@gmail.com www.ikainsternak.com
 20730 AZPEITIA

Xabier margoak
 Pinturak eta Parket Laminatuak f
 Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

Afariak egin ditugu batean eta bestean, gure familia juergista samarra da eta. Azpeitia asko maite dut, gauden tokian gaudela ez dugu Azpeitia ahanzten.

Askotan etortzen al zara?

Normalean, kontu tristeak tarteko joan izan naiz Azpeitira: gurasoak hil zirenean-eta joan nintzen edo familiakoren bat hiltzean. Baina oraingoan ez naiz kontu tristeak tarteko izan bertan, eta halako aukera politikak aprobetxatu egin behar dira. Duela hiru urte ere Loiolara gonbidatu ninduten, eta gustura joan nintzen. Bisita asko ez, baina, hori bai, *Uztarría* aldizkaria hilerok jasotzen dut, eta gustura irakurtzen dut. Aldizkariari esker izaten dut Azpeitiko kontuen berri, eta eskertzen da.

Euskadi Irratian kolaboratzen duzu. Gustuko al duzu irratian hitz egitea?

Ai ama, hala da bai. Gustura ari-

tzen naiz, baina gertatzen dena da, tamalez, ez garela asko euskaraz hitz egiten dugun mojak, eta horregatik jotzen dute denek nigana. Besterik ez dagoelako jarduten dut, ez ona naizelako. Duela bi urte deitu zidaten goizean goiz Euskadi Irratian egiten duten *Argi ibili* saiotik solasean aritzeko proposamena egiteko. Ikasturte bat egin nuen, eta, egia esan, gustura aritu nintzen. Iaz berriro deitu zidaten, bost-zortzi minutu inguruko saioa egiteko, eta baiezkioa eman nuen. Dirudenez, jende askok entzuten du; izan ere, Azpeitian izan naizenean herritar askok esan dit entzun izan nauela. Eta nik galdetzen dut: "Jendeak zer egiten du ordu horietan irratia entzuten?". 05:45ak aldean ari-tzen naiz solasean, asteazkenetan, eta...

Zeri buruz hitz egiten duzu?

Edozerri buruz: Donald Trumpez, politikaz, gure eskualdeko kontuez, herri galdeketez, baratzeaz, eguraldiaz... Zertaz ez dugu hitz egiten! Gai guztiak ukitzen ditugu, Aita Santua, eta direnak eta ez direnak. Asteko gertakizun bereziei egiten diegu lekutxoa.

Donamariako komentuan, zein da euskararen errealitatea?

Hamalau moja bizi gara hemen, eta bi edo hiru gara euskaldunak. Horiei euskaraz hitz egiten diet nik beti, baina beraiek batzuetan gaz-



Donamariako komentuararen kanpoaldea. ||| Olatz Garmendia

telaniaz erantzuten didate. Lehen, baziren beti euskaraz hitz egiten zuten moja batzuk, baina hil egin ziren. Komentuko egoera aldatu egin da, hainbat tokitako mojak bizi baitira hemen: Madril, Albacete, Burgos... Azpeitiarrok altxor hori daukagu, -euskara-, eta zaindu egin behar dugu. Donamaria oso herri euskalduna da, eta saiatu naiz komentuan euskara sar-tzen. Irakatsi dizkiet euskarazko abesti batzuk, meza ere elebitan egiten dugu... baina saiatuta, asko saiatuta. Erdaldunak dira moja gehienak, eta horiei kostatu egiten zaie ikastea, nahiz eta euskararekiko jarrera ona duten.

Zer etorkizun ikusten diozu klausurari?

Orain, oso emakume gutxi aukeraten du moja izatea, asko aldatu dira gauzak. Guk ere bizimodu mota hau aldatzen joan behar

dugu, gizartea ere zeharo aldatu delako, eta aldaketa egiteko prest gaude. Argi daukagu: egun, jendea ez dago bizimodu honetarako, lau pareten artean egoteko, eta normala da, beste martxa bat baitago kanpoan. Emakumea aurrera egiten ari da askatasunera bidean, eta ez dago prest hemen lotuta eta lege guztien menpe egoteko. Normala da, emakumeok geure bidea egin behar dugulako. Kristautasuna da garrantzitsua, eta hori ez da galduko, baina molde berrietara egokitu behar dugu. Zaharrok berritzen hasi behar dugu; asko ireki bagara ere, askoz gehiago egin behar dugu. Denborarekin, klausurak bukatu egin behar badu, hala behar du. Gauza asko desagertuko dira aurrera egiten den aldira, eta klausura desagertzen bada ere, kontenplariak izango dira.*

“Asko ireki bagara ere, askoz gehiago egin behar dugu”

“Kristautasuna da garrantzitsua, eta hori ez da galduko”

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Erositako etxebizitza eraberritu nahi duzu?

Etxebizitza zaharberritzea nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua

Gremioen koordinazioa

Epeak betetzea

Erakusketa handiak

Aberriafu poligonoa, 2
Tel. 943 135 016
Zarauz

Santiago ezkoa, 12
Tel. 943 143 443
Zumala

San Juan, 16 edif. AXIRI
Tel. 943 302 100
Azkoitia

Geologia Kalea, 18
Tel. 943 149 241
Zemoa

Pertsona asko, bakarrean

Ordu txikiak eta lagun onak izatea bezalakorik ez dago mundua konpontzeko... ez horixe!

Beti izan naiz parrandazalea eta, are gehiago, lagun on zalea. Behin, hala bota nion bat-batean lagun on bati: "Pertsona asko gara pertsona bakarrean". Horrela ikusita, hau da, kakotx artean eta egunez irakurrita, Hipokratesen edo Platonen esaldi abstraktu hilezkor bat dirudien arren, nire ahotik irtendakoa da. Beraz, azalpen sakona izanagatik, ulerterraza dela zin dagizuet. "Hala ere, gehientsuenek hala sinesten dutela uste dudana arren, ez dut uste horren arabera jokatzeko dutenik". Kakotx artekoa ozen pentsatzen dudana da.

Honatz, lagun onari jarraian eman nion azalpena: "Guraso gara, bikote, lagun, lankide, ezezagun, ezagun, irakasle, ikasle gara. Pertsona asko gara pertsona bakarrean". Gehienok gizartearen begietan tentuz hautatutako garenaren alde bat edo bi besterik ez ditugu erakusten. 'Beste aldeak' zaindu ez, estali edo zuzenean ezkutatzeko ditugu. Hala eta guztiz, ordea, "gara" nahi ala nahi ez. Halaxe bota nion berari, gutxi gorabehera.

Hilabete asko pasatu dira 'esaldi moment' hartatik, baina bat egiten dut esaldiarekin, eta, are gehiago, esanahiarekin. Eta, agian, pentsatuko duzue, edo ez...: Eta zer dela eta bota du hau honek?

Olatz, kolaboratzailea ere bai

Nigandik hasita, ni Olatz naiz, Olatz Aguado marrazkilaria, andereño baten alaba, bai eta Viuda de Orbegozo dendakoa, Leireren ama, Aioraren ama, etxepeko administratzailea, X anderea, sormen libreko irakasle izana, olerki zalea, gizarte integratzailea, laguntzailea, laguna, antzerkilaria, txikitari alaitari izan nahi zuena, eta abar eta abar naiz.

Baina gure herriko askorentzat, tamalez, nik dudana zerrenda luzea duen edozein azpeitiarri gertatzen zaion bezala, bat edo bi erreferentzia nahikoak ditu ni edo bestea



|||||||olatz aguado|||

|||Gehienok gizartearen begietan tentuz hautatutako garenaren alde bat edo bi besterik ez ditugu erakusten



ezagutzen gaituztela esateko edo ezagutu nahi ez gaituztela erabakitzeko.

Askok, nire ustez, politika batetik eta antzinako esames edo jasotako usteen herentzia bestetik, horien arabera ikusten dute bestea.

Gauza eta egoera asko ulertzeko gai zenezaren ustea dut, baina, hala ere, ulertzeko zaila egiten zaidana zera da, arrazoirik eman ez eta agurra ukatzen dizunaren jarrera.

Edo pertsona jakin batekin zaudenean agurtu eta kalean bakarrik joan eta agurtzen ez zaituenarena. Edo 'jesukriston' txapa sartu, bere bizitza (Fideoko argi berdeak testigu) gau batean belarria janez kontatu eta hurrengo egunean ez ikusiarena egiten dutenen jarrera da ulertezina egiten zaidana.

Baina *hakuna matata my friend*. Adinak dakarren sosegua lagun, norberak besteari kalterik egin gabe bakean bizitzea bezalakorik ez dago, jarrera horiek eramanerrazak egiteko! Bakoitzak bere onena ahalik eta esparru gehienetan zabaltzen saiatzea izan behar ko luke xede eta jarrera bizitzan. Nire ustez horrek egiten gaitu aberats, anitz eta aske!

Beraz, irakurle, gaur lehenengoz, nire aurreko zerrendari, zera gehitu nahiko nioke: kolaboratzailea!*

Beldurrarekin ausartzea

Duela pare bat aste hasi da Nagore unibertsitatean. Herritik irten da lehen aldiz, adinez nagusia da dagoeneko, eta sentitzen du badela nor bere mundu txikian. Presioa ere sumatzen du, ordea. Kostatu zitzaion ikasketak aukeratzeko, batik bat, sinetsia zuelako bere bizitzako erabakirik garrantzitsuena izango zela. Bizitza osoa pasatu du Nagorek korranteak daraman lekura igerian, ez du erabakirik hartzeko premiarik sentitu eta hezkuntza ereduak zein gizarte moldeak esan diote, gutxi gorabehera, nola jokatu eta nola izan. 18 urtera iritsi da, eta esan diote dagoeneko iritsi dela unea handitan zer izan nahi duen aukeratzeko. Agobioa, zalantza... ez daki erabakiak hartzen. Baina beno, denborarekin konturatuko da Nagore ere bizitzak ehundaka buelta ematen dituela, eta inoiz ez dugula guztia karta batekin jokatzen, ezta partida batean ere.

Letren bidea hartu du Nagorek, nahiz eta ingurukoek esan dioten garai gogorrak direla erromantikoentzat. Batzuetan sentitzen du egiten duen guztia justifikatzeko behar hori, eta ez zaio gustatzen; baina, tira... hau horrela da. Sartu da unibertsitateko gelara, Azpeititik bera bakarrik joan da ikasketa horiek egitera hiriburura. Orain artean ez du imajinatu ere egin horren jende desberdina egon zitekeenik Euskal Herrian. Ez du euskararik entzuten, bere adineko gazteak gaztelaniaz ari dira. Orduan hasten da pentsatzen, agian, bere herria, Azpeitia, dela salbuespena, euskaraz bizi den herria delako. Are gehiago, hasten da pentsatzen, agian, Nagore bera dela salbuespena, euskaraz bizi den pertsona bat delako.

Lehen sentimendua estutasuna da. "Non bizi izan naiz orain artean?", "Hau al da Euskal Herria?", "Nora etorri naiz?". Nekatuta iristen da etxera Nagore, ez delako sentitzen bere lekuan. Gauza asko pasatzen zaizkio burutik; izan ere, unibertsitatean inork ez du ezagutzen, eta ez litzateke zaila zerotik has-



eneritz albizu lizasol

Herri bezala ere, ez da txarra pausoak ematea, zalantzan jartzea; erosotasunetik irtetea

tea, pertsona berri bat izatea eta inguru horretara moldatzea. Baina ez dago oso konbentzituta, bera ez delako hori. Beno, egia esan, ez daki seguru bera zer den ere, orainxe ari baita deskubritzen zer gustatzen zaion eta zer ez. Errazagoa zen guztia bizitza guztiko lagunekin zegoenean, ia erabakirik hartu gabe, naturaltasunez izaten. Baina benetako Nagore ote zen hura? Duda, estutasuna, eta, berriro, bere lekua ezin aurkitu.

Pausoak ematea

Hasieran hala dirudi, Nagore, baina ez da hil ala biziko kontu bat. Segituan egingo du bere txokoa, eta merezi duten lagunak aurkituko ditu. Bere burua ezagutzen lagunduko dio, eta izaerari forma ematen ere bai. Azpeititik modu horretan irteteak, jende hori guztia ezagutzeak, ikasteak eta irakasteak, galderak sortuko dizkio. Nagore ez da izango pertsona bera hemendik urte batzuetara. Berak hori ez daki, baina ikusiko du.

Nagore izan nintzen ni duela zazpi urte; eta zu ere bai, ziur asi. Nagore izaten jarraitzen dut, eta Nagore bezala sentitzen segi nahi dut, bizirik nagoela erakusten didalako horrek. Beldurrek eta kezkek erakusten digute erabakiak hartzen ari garela, gure bidea egitera ausartu garela eta ez dugula konformatu nahi egote hutsarekin bakarrik. Eta herri bezala ere, ez da txarra pausoak ematea, zalantzan jartzea; erosotasunetik irtetea, zerbaiten bila. Beldurrarekin bada ere, ausartzea. Galdetu katalanei.



“Jendea oso gustura dago ortokeratologiarekin”

INAR OPTIKA

Tlf.: 943 03 89 49/688 67 67 26

Maiatzean zabaldu zuten Inar optika Onintza Agirregabiriak eta Maite Zaballak. Ortokeratologia teknika da beren espezialitateetako bat, eta diotenez, oso emaitza “onak” ematen ditu.

Zer da ortokeratologia?

Lentilla iragazkor batzuk dira, gauzez janzten direnak, eta kornea moldeatzen dute. Gaur egun ditugun makinaren bidez, pertsona batek duen miopiaren edo hipermetropiaren neurri zehatzak lortzen ditugu, eta neurri horien arabera, badakigu nolako lentillak jarri behar dizkiogun bezeroari. Lentilla horiekin lo eginda, hurrengo egunean ez da lentillarik eta betaurrekorik behar, eta ehuneko ehun ikusten da.

Teknika berria al da?

Ez, aspalditik egiten da. Aurreko mendean ere egin zituzten saiakerak eta ikusi zuten funtzionatzen zuela, baina lehengo makinek ez zuten begia oraingoek bezala neurtzen, eta fabrikazioa ere ez zen gaur egun adina kontrolatzen. Egun, ordea, bi gauza horiek hobetu egin dira, eta lortu dugu lentillak begiarentzako seguruak izatea eta kornean egingo duten eragina kontrolatzea.

Nork erabil ditzake?

Adin guztietako jendeak. Baina nerabezaroaren aurreko urteetan, garapeneko adin horretan, dira eraginkorrenak. Konturatu gara adin horretan asko hazten dela miopia, eta hazkuntza hori murriztu egiten da teknika honen bidez. Urteetako esperientziarekin ikusi dugu aurretik zegoen graduazioa mantendu



egiten dela, baina ez dela gehiago hazten. Gainera, oso erosoak dira lentillarik eta betaurrekorik erabili nahi ez dituen edonorentzat.

Ba al dute arriskurik?

Lentilla arruntek dituzten arrisku berberak dituzte. Osasun azterketak guk esanda bezala egi-

nez gero, mantenuko likidoa ondo erabilita eta garbitasuna zainduta, ez dago inolako arriskurik.

Zer diote probatu duten bezeroek?

Hainbat kasu izan dugu, eta jendea oso gustura dago. Oso erosoak direla diote.

Azpeititik kanpora bizi bazara ere,
jaso zure etxean herriko informazioa hilerok

uztarria

HERRI AZPEITIKO ARRANWAZO TELEBA

uztarria@uztarria.eus

943 15 03 58




HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Hitz jolasa, eskaintzak euskaraz egiteko.

Eskaintzak iragartzeko moduak eta moduak daude, eta Bertan merkatarik elkartek, hizkuntzarekin jolastuz, lelo hori jarri zuen Stock Azokan. **Uztarria**

**BEHERA.** Denetarik lanak, baina gaztelaniaz.

Askotariko lanak iragartzeko publizitate hau herriko hainbat kaletako hormetan ikus daiteke. Eskaintza zabala, bai, baina gaztelaniaz soilik idatzita. **Uztarria***



Gillen Aldalur. (Maitane Bermejo)

ESANA DAGO

“Gustura gaude azken boladan talde bezala asko hazi garelako”

“Kontzertu mordoxka bat emango dugu; izan ere, hitzordu dezente ditugu lotuta”

GILLEN ALDALUR
Trini Foxeko gitarrak-jotzailea

“Okerrena eta zailena AEBetako saskibaloira egokitzea izan da”

“Jada hartu dut erritmoa, eta gehiago jokatzen saiatuko naiz”

ENERITZ LARRAÑAGA
saskibaloijokalaria

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK*

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urut: 943 81 57 81

Aiortza Autoak


CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonica.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Baloia eta irratia

Zoriona depresioaren goiko solairuko lagun alaia eta jatorra bada, depresioa zorionaren azpian bizi den lagun triste eta takarra da. Goiko lagunaren bila, behekoa kolegatzat hartuta, beti xextran. Ni eta neu elkartu eta ipar poloko bola dantzan jartzen amorratua naiz. Itsasoari begira lasai nengoela, toaja-bizilagunak zorionaz eta materialismoaz hizketan hasi ziren. Eta nire nik nire neuri: "Hi, benetan, bizi honetan, zerk egin hau zorionsu? Lepo mehe gaineko kaxkoak oraingoan lan gutxi: baloia eta irratia. Nik neuren berri duenetik baloia oinetan sentitzeak zorionsu egin

nau. Ez nekerik, ez tristurarik, ez malkorik. Galdu ala irabazi, baloiak eman diguna guk bakarrik dakigu. Eta zuetako askok ere bai. Txinpartak eta ixarrak zainetan. Eta irratia. Nire lagunik zintzoena. Zenbat ordu sukaldeko mahaian etzan, eta burua zuren ondoan jarri, eta zu entzunez amets egiten. Lehenbizi, Tito, Joxean, Joti... eta, gero, Txapas eta Iñaki (Mujika maestro). Sermoiak sermoi abduzitu-ta. Irratiak gaur eguneroko ogia ematen dit. Ogia lortzeak nahiko burukomin ere bai. Baina irradi maitea, zu betiko nirekin eta niretzat. Zure argi gorria piztean, ni eta neuren



txetxu urbieta

barruan sua, txinpartak eta ixarrak. Eta belarri ondoan zaudenean, gure maitalerik beroena.

Nork gehiago izan lehiatzen garen munduan, nik eta neuk bi gauza nahikoak ditugu depresioaren goiko solairuko lagun alaia izateko. Baina zenbat eta gehiago eduki, nahikoa dugu beheko solairuko tipo tristearen kolega egiteko.

Hori bai, irriari eta baloiari, bi gauza material, benetako bi lagun erantsi behar, kabroi samarrak badira, hobe. Eta entsalada horretan hiru *rubia* sartzen badituzu, ekaitz perfektua. Bielsak esango lukeen bezala, eromenean hobeto bizi gara.*

IKUSTEKO!



▲ AUZOKO ITURRIA, ALFONBRAK GARBITZEKO APROPOSA.

Sanjuandegiko Barrenetxe auzuneko bizilagun batek udako eguzkiaren epela aprobeztatu du etxeko alfonbrak kalera atera eta auzoko iturrian garbitzeko, eta, ondoren, petrlean lehortzen jartzeko. Garai bateko emakumeek garbitokiko arraskan garbitzen zuten arropa, eskuz. Usadio hura berreskuratu beharko ote litzateke bada? [Herriar bat](#) [Ainitze Agirrezabala](#)*

IRAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Migranteen azalean

LOIOLA. Epe laburreko memoria dugula uste dut askotan. Ez gara gogoratzen gure herria ere migrantea izan dela. Euskaldunak Amerikara, Alemaniara eta beste zenbait tokitara joan zirela. Gurera Extremaduratik, Galiziatik edota Andaluziatik etorri zirenak ere asko dira, eta horrekin gogoratzeko ez dugu urte asko atzera egin behar; nahikoa da aitona-amonei galdetuta. Beraz, ez dago batere gaizki tarteka horrelako aldaketek eragiten dutena gogorarazteko egitasmoak martxan jarzea.



alex silva



Betharrameko fatxada

LEHEN AUKERA. Urteak dira Betharran eraikinak berrikuntzak behar zituela. Bertan ikasitakook ez genuen aldaketarik ikusten eraikinean, herriko irudierekin nabarmetzen zen eraikin erraldoian. Orain, eraikinari ukitu modernoagoa eta gardenagoa emango diote denen artean erabaki dugun fatxada berrituarekin. Lazo ederra egiten ari diren obrarentzat!



Erabakiek egiten dute demokrazia

KATALUNIA. Pozez eta ilusioarekin bizi izan dut Katalunian sortu den mugimendua. Kataluniako zenbait herritan izan naiz azken egunetan, eta esperientziak gozatu dut. Ederra da Bartzelonako kaleetan da goen giroa bertatik bertara ikustea, barnealdeko edozein herritan kar-

telak ikustea, elkarretaratzeak ikustea... Gazteak eta helduak ilusioz beteta daude, modu guztiz baketsuan demokrazia praktikatzeko gogoz. Zer da ba demokrazia erabakitzeke eta parte hartzeke aukerarik gabe?*

INKESTA

zineman ikusi
duzun azken
filma zein izan da?

 Ainitze Agirrezabala

KRISTIAN BRIONES

41 urte



**"Puf! Bi urte eta
erdiko alaba dugu,
eta hura jaio
zenetik ez gara
oraindik izan zineman. Lehen
bai, asko joaten ginen. Los
juegos del hambre uste dut izan
zela ikusi nuen azken pelikula".**

ALAITZ LIZARRALDE

43 urte



**"La decision del
rey ikusi nuen
udan. Garai
batean, hilero**

**joaten nintzen; orain, urtean hiru
bider joaten naiz. Donostiako
zinema aretoak ditut gustuko".**

ANE ARISTI

39 urte



**"Berez, uda
sasoian ez gara
zinemara joan
zaleak, baina**

**Santa Polan (Alacant) izan gara
abuztuan, eta han *La bella y la
bestia* ikusi dugu umeekin.
Baina, oro har, Soreasura joaten
gara, astelehenetan".**

JOXEMI BENITEZ

37 urte



**"Hiru urte eta
erdiko semea
dugu, eta guraso
izan ginetik ez**

**dugu zinema aretorik zapaldu.
Udako oporretan Zamoran izan
gara, eta han *Cars 3* ikusi dugu,
animaziozkoa. Semearen lehen
aldia zen, eta nahikoa ondo
pasatu genuen".***

Negua badator

Game of Thrones telesailaren jarraitzaileentzat aski ezaguna izango da esaldia. Stark etxearen leloak garai ilunaren itzulera adierazten du, zeinetan iluntasunak mundua menpean hartuko duen, ukitzen duen guztia minaz eta heriotzaz ereinda.

HBOren produkzioan, mundu mailako fenomeno bihurtu den horretan, fantasiako erreinu batean oinarrituta egon arren, bizi garen gizartearekin paralelismoa aurki daiteke. Erreinuako alderdi guztiek elkarren kontrako konfrontazio amaigabea dihardute, boterea lortzeko edozein estrategiaz baliatzen dira: mehatxuak, hilketak, gezurrak, traizioa...

Momentu honetan, Kataluniako erreferendumen harira gertatzen ari den guztiarekin, burura etorri zait Starren leloa: "Negua badator".


Penagarria da Espainiako Gobernuaren egoeraren aurrean egiten ari den kudeaketa; jauntxokeriaz baliatuz, iraganeko denborara eraman nahi gaituzte: errepresioa, eskubide zibilen urraketa, atxiloketak,



chusemi vicente

adierazpen askatasunaren ukazioa... Hori gutxi baltz, gorrotoaren politika ere maisuki erabiltzen ari da, zilegi den eskaera demokratiko hori eraso moduan saldu baitie estatuko "demokratei". Azken asteotan hedabideetan eta sare sozialetan esaten denari baino ez diogu kasu egin behar espainiar askori gorrotoaren diskurtsoa barruraino sartu zaiela ikusteko.

Ez dakit oso ondo zer izen jarri gertatzen ari den horrek guztiak sentiarazten didanari: amorrua, beldurra, mina, tristura... Baina argi daukat ezer egiten ez badugu, bizitzen ari garen egoerak ez digula ezer onik ekarriko. Puntu honetara iritsita, inoiz ez bezalako krisialdi baten aurrean gaudela esango nuke. Ez dakit zein konponbide emango zaion kontuari, baina badaezpada joan gaitezen negurako prestatzen. Ned Starren esanetan, "negua iristen denean, otso bakarlarria hiltzen da, baina otso taldeak bizi-raun egiten du".*

**galDETZEN hasita, Betharrameko
etxaurrea erabaki ostean, zeri buruzkoa
izango da hurrengo galdeketa?  Uztarria**

Bizitzaren urakana

Irakurri ohi dudan liburu batek honako hau dio: "Altxorra dagoen lekuan eta bizitzaren ekaitzaren erdian, zure bizitza dago. Egia hori behin eta berriz errepikatzen dela uste dut. Duela aste batzuk, nire Borinken (Puerto Rico) uhartean urakan batek txiki-zioa eragin zuen. Urrunetik bizitzea oso tristea izan zen, familiakoak nola zeuden jakin gabe. Baina barnean bizitzen ari nintzen ekaitzak ez zuen beraiek bizitzen ari zirenekin zerikusirik. 'Xarmadun uhartera' bortizki heldu zen urakanak *Maria* zuen izena, eta gure mendiek aurre egin zioten arren, ezin izan zioten indar hari eutsi. Behin alde egin nuen Puerto Rico hura oraintxe ez da leku bera.

Horrek garrantzia ematen diegun gauzen inguruan gogoeta egitera eraman nau; funtsezkoak ez diren gauzei garrantzia handia ematen diedala, diegula, ondorioztatu dut. Ez dugu daukaguna aintzat hartzen, eta ziurtzat hartzen ditugu ez ditugunean benetako garrantzia ematen diegun xehetasun ñi-



linette montalvo

miño horiek, lehen egin nezakeen eta orain egin ezin dudan dei xume hori bezalaxe. Urakanaren ostean, egiazko urakana iristen da: bizirauteko borroka; ura, janaria edo sendagaiak bilatzea... Nire lurraldeari egunean egunekoa bizitzea besterik ez zaio gertzen.

Mexikon bezala, badakit berriro zutik jarriko direla halako ezbeharrak bizi dituztenak. Ez naiz ezkorra, badakit halako tragediek garbitzen dutela, berritzen dutela. Mendiak berriz ere berdeak izango dira, eta lurra orain garbi dago. Horrelako handitasuna duen fenomeno bat ikusi eta bizi ondoren, badakit nire uharteko jendeak benetan garrantzia duena balioztatzen ikasiko duela, itxaropen hori daukat; nik neuk ere hori ikasi dut. Gainera, *Maria* nazio bezala berreraikitze aukera eman digu, erori ginen lozorro horretatik esnatzeko aukera, geure burua soilik daukagula ulertzeko eta borroka benetan orain hasiko dela jabetzeko aukera.*

1986AN AZPEITIAK TALDE BATEK ANNAPURNA II IGOTZEKO SAIKERA EGIN ZIEN.

EZ ZUTEN GAILURRA EGITEA LORTU.

Paradisu Zinemari ikusiko gara



Annapurna IIn izan ginen



2017AN BESTE AZPEITIAK TALDE BATEK ANNAPURNA II IGOTZEKO SAIKERAN GRABATURIKO IRUDIEKIN DOKUMENTAL BAT EGIN NAHI DU. LORTUKO DUTE GAILURRA EGITEA?



Bai ezak

“Ezetz esaten ikasi behar duzu. Bai” txioa ikusi nuen behin. Barrea ateraz zitzaidan, kontraesanak nire egunerokoarekin bat egiten zuen bitartean. Ezetz esaten ez dakigulako esaten dugula bai entzun nion Anariri kantu batean, eta *Curriculum Vitae* betetzeko kurtsoen artean, *Ezetz esaten ikasteko teknikak* izeneko noiz aterako zain gaudenak batzuk bagarela pentsatuta kontsolatu nintzen. Baina iraila dator bere proiektu berriekin. Energiak betetako proposamenei heltzen diegu, edo beraiek eusten digute guri, oreka gal ez dezagun. Eta orri honetan,

niretik idazteko eskaintzari “bai” esan diot ilusioz. Identitatea aukeratzeko abagune oro zapuzten diguten garaiotan, baiezkoaren edo ezezkoaren jabe izatea bera ere, aukera bat bilakatzen dela pentsatzen dut; besteen aukerak ere zilegiak direla hausnartu dut. Ezetza jasotzeak ezetz esateak baino gehiago mintzen nauela ondorioztatu dut. Eta *Ezetz esaten ikasteko teknikak* baino *Ezetzak kudeatzeko teknikak* izeneko kurtsua ez ote zaigun baliagarriagoa izango ziurtatzen nabil ordutik. “Ezetz beti dela ez” entzun dugu uda honetan arazoa besteen kon-

felipe murillo tzienezietan ere badela sinetsita, geurea lasaitu dugu ordea. Eta geure ezetzei begira jarri (besteenei begira inoiz jarri baginen ere) gara. Baina ezetz esaten ari zen beste emakume bat erahila izan zen duela aste batzuk Lapurdin. Hilketa hori salatzeke dozenaka herritar batu omen ziren herriko plazan, hala zioen Uztarriako berriak. Argazkiak zifrari justizia egiten ziola ere esango nuke. Baina ezin ziurtatu informazioa, neu ere ez nintzelako han. Ezetz esaten ikasi ote dudan beldur naiz orain. Mobilizatzeari ezetz. Jada, kontzientziak lasaitzeko ere ez.*



Erotikan Plax!

Luma kopistegiko langilea da Mikel Labaka, eta hil honetan berari egokitu zaio Arremanitzeko kideek egindako galderari erantzutea.

Askotan, besteen berdinak izaten saiatzen gara. Zer egin dezakegu besteen kopia izateari uzteko?

Geure burua maitatu.

Noiz ditugu txintxetak ipurdian?

Zerbait amaitzeko bost minutu falta direnean.

Zuri-beltzean edo koloretan?

Koloretan.

Zerk ematen dio kolorea bizitzari?

Ilusioak.

Arkatza edo boligrafoa?

Boligrafoa.

Erotismoari lotuta, zer azpimarratuko zenuke fluoreszentearekin?

Geure nahiak entzutea, zaintzea.

Word, jpeg, pdf... Zer formatutan bizitzen da ondoen?

Formatu librean.

Nola esan...

Goxo eta zuzen.

MIKEL LABAKA

Adina. 39 urte.
Herria. Aizpurutxo, Azkoitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Kopistegiko langilea.



Egiten duzun lanean gustuko duzun momenturen bat?

Asko kostatutako lana ondo bukatzen dudun unea.

Zer egiten duzu plazer hutsagatik?

Gustuko lagunekin mahaiaren bueltan egon.

Gustuko jaki bat?

Txistorra, arrautza frijitua eta patatak.

Gau zoro batean dantzatzeko abesti bat?

Lepoan hartu ta segi aurrera.

Goiz jaikitzea merezi duen plan bat?

Nonbaitera bidaia eder bat egitea.

Usain bat?

Udaberriko goizetako usaina.

Xarma duen txoko bat?

Sakoneta.

Kalean, gau giroan, ikusteko film bat?

*Corre, Lola, corre.**

haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)

Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
 Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
 Hitzorduak, hilabetea: hilaren 18an
 (16:00-19:00) eta 26an (10:00-13:00).





Bildumak, altxor

Hainbat herritarrek urteak daramatzate diruen, harrien, titareen, garagardo botilen, portzelanazko andareen, filmeen, CDen... bildumak osatzen. 📌📷 Ainitze Agirrezabala



▲ **DIRUA.**

Xebas Bereziartuak ia mundu guztiko 5.000tik gora txanpon eta billete ditu. Kontinente guztietakoak ditu, gehienak Europakoak, asko lagunek ekarritakoak. Kanpora doazen lagunei bisitatu behar duten lekutik dirua ekartzeko eskatzen die Bereziartuak, eta, ondoren, balioa eurotan itzultzen die. Bereziartua bera ere bidaitu zalea da, eta dio herrialde arabiarreko dirua dela "erakargarriena".



▲ **TITAREAK.**

Kontxi Irigoien jostuna da, eta duela 30 urte hasi zen titareen bilduma osatzen, oporretatik senide batek ekarri zion titare baten harira. Geroztik, Argentinako, Boliviako, Tunisiako, Indiako, Turkiako, Kubako, Egiptoko eta beste hainbat herrialdetako 50 inguru ditu.

▼ **CD-AK ETA BINILOAK.**

Eneko Alberdik gaztetatik du musikarako zaletasuna, eta horren lekuko dira etxeko egongelan dituen CDak, biniloak eta fanzineak. Guztira, punk-rock estiloko 750 CD original ditu, beste 400 grabatutakoak, 90 fanzine eta 300 binilo.





▲ PORTZELANAZKO ANDEREAH.

Ingalaterrako eta Parisko merkatuan bigarren eskuan erosita harrizko eta portzelanazko 20 andere inguru ditu Esther Etxarrik. Horiez gain, 150 eta 200 urte artean dituzten lau ume-kotxe ere baditu. Museoa dirudi haren etxeke ganbarak.

▲ FUTBOLA ETA ZIKLISMOA, BARNEAN.

Zaragoza futbol taldearen jarraitzaile sutsua da Angel Gomez, eta Jose Angel Iribar eta Eddy Merckx txirrindulari basatia miresten ditu. Futbolaren eta ziklismoaren historia jasotzen duten liburuak eta prentsako argitalpenak ditu, kromoak, banderatzok eta Realeko iratzargailua, besteak beste.



▲ HARRIAK.

Ozeaniakoak izan ezik, gainontzeko kontinente guztietako harriak ditu etxean Edurne Aizpuru urrestildarrak. Zehazki zenbat dituen ez daki, baina 200 inguru badituela dio.





▲ GARAGARDO BOTILAK.

Orhantza Alegria eta Mikel Azkue Akerzulo lokaleko kideak dira, eta herrialde desberdinetako 200 garagardo botila inguru dituzte lokaleko apaletan ikusgai jarrita.

▼ PELIKULAK.

Andoaingo Zine eta Bideo eskolan irakaslea da Jon Verdejo, eta 780 film ditu etxeko gela batean. Horiez gain, terabyte bateko hiru disko gogor ere pelikulez beteta ditu.



Ia urtebetez luzatu den erbestetaldia-
ren ondoren, joan den uztail bukaeran
itzuli ziren baseritarren saltokiak Azoka Pla-
zara. 2016ko abuztuan utzi zuten eraikin za-
harkituaren aldean, beste itxura bat duen
egoitza topatu dute itzuleran. Kanpo eta
barru, guztiz eraberrituta ageri da Azeitiko
Berdura Plaza. Baina ez da eraikinaren itxura
aldatu den bakarra.

1902an eraikia, 1970eko hamarkadan ber-
ritua eta handitua, "urte askoan erabat utzita
egon den eraikina" zen azoka plaza eta
"berak eskatzen zuen berritzea", dio Josu La-
baka zinegotziak. 2014an hasi zituen Udalak
berritze lanak, teilatuan eta goiko solairuan;
eta, beheko solairukoak iazko uda arte hasi
ez baziren ere, ordurako argi zuten hirigintza
arloko "ezinbesteko" esku-hartzearen gaine-
tik "proiektua berritzea zela benetako gakoa".

Bertakoa, eredu propioaren ardatz

Krisi ekonomiko betean hasi zen garatzen
Udala Azoka Plazarako proiektu berria. "Eko-
nomiaren sustapena lehentasun bilakatu" zi-
tzaiela gogoratu du Labakak, eta testuinguru
horretan kokatu du azoka plazaren proiektua,
lehen sektoreari bultzada emateko ahalegin
bezala.

Euskal Herriko herri askotan berritu dituzte
edo berritzen ari dira merkatu plazak, baina
Azeitikoan hautatu duten ereduak bakarra
da, momentuz. "Bertakoa" da zinegotziak
proiektua azaltzerakoan gehien darabilen



Itxura hau zuen Azoka Plaza berrituak joan den irailaren 12ko azoka eguneko goiz erdi partean. Atzean, orain

Berri, azal eta mami

Azoka Plaza goitik behera berritzeko egitasmoa
osatzear da. Itxuraldatzearekin batera dator barruko
jarduerarena ere. 📌📍 Ainitze Agirrezabala/Mailo Oiarzabal



dik irekitzeko dagoen Elikaguneak beteko duen tokia, itxita.

hitza, eta egitasmoaren ardatza ere bai: Azpeitiko Azoka Plazan bertako produktuak soilik salduko dituzte, Euskal Herrikoak, 150 kilometroren bueltan ekoiztutakoak. Produktu horiek merkaturatzeko aukeratutako bidean ere bada berritasunik, Berdura Plaza berriko ikur izango den saltoki iraunkorra: Elikagunea. Irabazi asmorik gabeko Artxara Kooperatiba Elkarte Txikiak kudeatuko du. Saltoki iraunkor berrian elikagai freskoak zein ontzi-ratutakoak salduko dituzte. Urte bukaerarako irekitzeko asmoa dute. Orduan, lanak guztiz amaituta, inauguratuko dute plaza berriua.

Ekoizle batzuk egunero egoten dira merkatu plazan, baina astearte goizeko eta ostiral arratsaldeko azokak izan dira orain arte Azpeitiko eta inguruetako baseritarren produktuak eskuratzeko ohiko hitzorduak. Elikagu-

nearekin, azokako ordutegitik harago zabalduko dute aukera hori, "gaur egungo bizimoduarekin uztartzeko beharrezkoa ikusten zelako eskaintza hori egun osoan edo ordutegi zabalago baten barruan egitea. Azoka egiteko gunea saltoki iraunkor batekin osatzea". Sukaldea izango du Elikaguneak eta horren bueltan ikastaroak, hitzaldiak, zuzeneko sukaldaritza saioak eta dastaketak antolatu nahi dituzte. "Heziketaren ikuspegitik herriari ekarpena" egitea da proiektuaren beste helburuetako bat, "ikusteko zeintzuk diren benetan bertako produktuak eta zeintzuk ez, eta horiei balioa emateko", Labakaren esanetan.

Herritarren babesa

Proiektua ez da "Azoka Plazan hasi eta Azoka Plazan bukatzen, dio zinegotziak. Harrera

||| **DATUA** |||||

40 ekoizle inguru dira gaur egun azoka egunetan Berdura Plazan saltokia jartzen dutenak.

||| **NONDIK NORAKOAK** |||||

ERAGILEEKIN.

Parte-hartze dinamika bultzatu zuen Udalak Azoka Plazako proiektu berria zehazteko. Herriko gizarte eta ekonomia eragileek hartu zuten parte: baseritarrek, merkatariek, Azoka Herritiken bueltako eragileek...

ALDAKETAK.

Arrandegirik eta harategirik ez da izango plaza berrituan, hasierako asmoa bestelakoa izan arren. Elikagunearen ikur den bertakotasuna bermatzeko eragozpenak aipatu ditu Labakak. Ontziratuta bai, salduko dute arraina.

GOIKO SOLAIRUA.

Urola Erdiko Mankomunitateak bere bulegoak eta zerbitzuak Azoka Plazaren goiko solairuan jarriko ditu, Udalarekin hitzartutakoaren arabera. Lanak aurreratuta daude, baina guztiz bukatu gabe.

ona badu, bertako produktuen aldeko apustua herriko beste saltoki batzuetara hedatzen ere lagundu dezakeela uste du, "eraldaketa baten abiapuntu" izan daitekeela: "Herritarren babesa beharko duen proiektua da, herritarren konpromiso bat, kontsumo ohiturekin lotutakoa. Herritarrak izango dira, neurri handi batean, proiektua bideragarri eta etorkizunera begira jarriko dutenak. Udalak bultzada bat eta hasiera eman dio, baina hori hala da". Bertako ekoizpenarekiko "gero eta konpromiso handiagoa" sumatzen du Labakak, eta uste du "herritarrak ere gero eta kontzienteago direla bertako ekonomia sustatzea denon esku dagoela eta eguneroko ahalegintxo horietatik eta ohiturak aldatzetik ere badatorrela".

Lehen sektorean ematen ari den belaunaldi aldaketa indartzeko tresna gisa ikusten du proiektua Labakak. "Anbizio handiko proiektuekin eta ilusio handiarekin bidea jorratzen ari den belaunaldi berri bat dago, lehen sektoreko proiektu ekonomikoak bideragarriak izan daitezkeela erakusten ari dena. Udalarri dagokio proiektu horiek babestea, eta lehen-

dik lanean ari diren baserritarrak ere laguntzea”.

Baserritarrak, “gustura”

Eskarmentu handiko baserritarrak dira Xebasti Artetxe (Itziar, 1945) eta Marian Etxeberria (Urrestilla, 1971). Etxean ereindako eta jasotako uztarekin azoka plazan postua jartzen urteak daramatzate biek. Itziartarra da Artetxe jaiotzez, baina Urrestillara ezkondu zen duela ia mende erdi, eta amaginarbaren urratsak jarraitu zituen. “Senarraren ama asteartero etortzen zen azokara baratzeko jeneroarekin, eta, hasiera batean, hari lagunduz hasi nintzen, –adierazi du Artetxek–. Gero, seme-alabak koskortzean, amaginarbaren lekukoa hartu nuen”.

Urte gutxiago daramatza azokan Etxeberriak. Urrestildarra da jaiotzez, baina Errezilera ezkondu zen, eta senarraren etxeko uzta saltzea du ogibide azken 15 urteetan. “Lehen hamar urteetan, asteartetan baino ez nintzen jaisten, baina barazkiak-eta astean behin ekarrita gutxitxo zela irizita, sarriago etortzeko eskatu zidaten bezeroek”.

Azoka Plaza berrituaren inguruan galdetuta, “kurioso” geratu dela aitatu du Artetxek. “Astearteetan baserritar guztiok plazan sartzeko justu samar ibiltzen gara, baina bazuen premia Azoka Plazak, eta txukun geratu da oso”. Era berean, itziartarraren esanetan, azoka egunetan postua jartzera “goizean goiz” etorri arren, autoa aparkatzeko “nahikoa lan” izaten dute: “Sarritan Paulo VI auzotik harago utzi behar izaten dut automobila, baina ez dago besterik, moldatu egin behar”.

Berdura Plazaren egiturarekin “oso gustura” dago Etxeberria ere. “Ikusita lehengo



Xebasti Artetxe, Azoka Plaza berrituko bere saltokian.

eraikin zaharra zer egoeratan zegoen, herri-tar asko ez zen barrura sartu ere egiten, eta behar-beharrezkoa genuen gisa honetako zeozer. Oso txukuna geratu da, eta azokara datozen bezeroen mugimendua hazi egin da. Gazte jendea, eta, oro har, herritarrak gerturatzeko erakargarri dago oso. Altxor bat dugu orain”.

Hainbat urtez, osasun aldetik “makal samar” izan da Azoka Plaza bi baserritarrek adierazi dutenez. Etxeberriaren esanetan, garaiak “asko aldatu” dira: “Duela urte batzuk, ez zegoen gaur egun adina supermerkatu, eta bai ala bai, ohituraz, astearteetan azokara etorri beharra zegoen. Gainera, egungo gizartean beste bizi egoera bat dugu, jendearen erosketa ohiturak aldatu egin dira, eta erosotasunak erakarrita, asko dira supermerkatuetara erosketak egitera doazenak”. Alabaina, Errezilgo bizilagunak ai-

tatu du gaur egun badakigula “zer nahi dugun” eta gero eta jende gehiagok “behar” duela bertako eta garaiko produktuak kontsumitzea, “osasuntsu” jateko.

Adin guztietako betiko bezeroak ditu Etxeberriak, baina adierazi du “gero eta erosle gazte gehiago” hurbiltzen zaiola postura eta haiei “erraztasunak” eman behar zaizkiela: “Ikusita gaur egungo gizartean eta bizimoduan teknologia berriek zer nolako indarra duten, bezero bati baino gehiagori Whatsappez hartzen dizkiot enkarguak, eta modu horretan lan asko egiten dut. Polita da bezeroekin dudaren harremana. Zenbait erosle Urte Berria zorientzeko mezuak eta dena bidaltzen dizkit Whatsappez”.

Azokaren osasunarekin jarraituz, Artetxek dio egon zela “halako beherakada moduko bat”, baina une honetan Berdura Plazan “nahikoa mugimendu polita” izaten dela dio. “Azoka Plaza berritzeko lanak zirela-eta Frontoi Txikian egon ginenean, jende gutxiago hurbiltzen zen, baina orain berriro ondo saltzen dugu. Enkarguak ere mordoa izaten ditugu”.

Urrestillako bizilagunaren esanetan, gazte jendeak baino helduek eta adinekoek “ohitura handiagoa” dute azokan kontsumitzeko. “Nolanahi ere, azken boladan, ostiraletan eta zapatuetan gazte dezente hasi da azokara erosketak egitera etortzen. Gaur [asteartea], esaterako, barazkien postua muntatzerako, 07:30erako, lau gazte zerbitzatu ditut”.

Baratzeko eta soroko jeneroaz gain, loreak ere salgai izaten ditu Artetxek azokan izaten duen postuan: “Lehen lorarik ez nuen saltzen, baina orain jendeak erosteko ohitura hartu du ostiraletan eta zapatuean, kanposanturako edo”.



Marian Etxeberria, Azoka Plaza berrituko bere saltokian.

Kalean zer diote?

Azoka Plaza berrituaren inguruan herritarrei galdetuta, guztiek aho batez diote “moderno, dotorea eta oso argitsua” dela. Nolanahi ere, bertako proiektuaren inguruan gehiengoak ezer gutxi daki.

Uztarria kalera atera da, eta herritarrei zera galdetu die: Zer iritzi duzu Azoka Plaza berrituaz? Zer dakizu bertako proiektuaren inguruan? Joerarik ba duzu han erosketak egiteko?



AMAIA SAN VICENTE
langilea

“Baserritarrengana erakartzeko balio du”

“Dotore geratu da. Uste dut jende gehiago ekarri duela lehen egunotan. Ez dakit gero hori mantenduko den, baina, hasiera batean, itxura polita du. Gauza gutxi dakit proiektuaren inguruan: denbora luzez iraun dutela lanek, *delicatessen* bat-edo zabaltzekoak direla, goiko solairuan bulegoak izango direla eta gauza gutxi gehiago. Jendea baserritarrengana erakartzeko eta pixka bat dinamizatzeke balio badu proiektuak, ondo dagoela iruditzen zait. Normalean, asteartean etortzen naiz. Amaginarrebak eman zidan baserritar baten erreferentzia, eta beti hari erosten diogu. Izan ere, ez du produktu kimikorik erabiltzen baratzean eta oso produktu onak izaten ditu. Aurrez egiten diot eskaria Whatsapez, beste-ala agortu egiten zaizkio eta”.



HARITZ SAEZ
langilea

“jendearen mugimendua handiagoa da”

“Asko gustatu zait. Gertutasuna areagotzen du, eta jendearen mugimendua handiagoa den sentsazioa dut. Baserritarrek beti produktuak bertan eskainiko dituztela dakit, eta kooperatiba moduko bat sortu nahi dutela, baina ez dakit askoz ere gehiago. Arratsaldeko txandan lana dudanetan, azokan erosketak egiteko aprobetxatzen dut astearte goiza”.



LUIS GURRUTXAGA
langilea

“oso txukun geratu da; irekia da, argitsua...”

“Lehengoa negargarri zegoen, eta beharrezkoa zen berritzea.

Ikusten da saiatu direla, eta oso txukun geratu da: irekia da, argitsua... Hau ez da baserritarrentzako hobekuntza bakarrik; euri egunetan haurrentzat ere aterpe egokia da jolaserako. Entzun dut bulegoak doazela goian... Azokan erosten dut, bai. Supermerkatuetakoek baino kalitate eta zapora hobea dute baserritarren jeneroek. Konfiantza gehiago dut.



ANGELES ETA JUANA OLAZABAL
jubilatua

“askoz ere hobea da; ez dauka kolorerik!”

“Zoragarria da. Modernoa da, lehengoarekin alderatuta askoz ere hobea; ez dauka kolorerik! Eta beiratea duenez, kioskoaren inguruko postuak ere bertatik-bertara geratzen zaizkigu. Nolanahi ere, diotenez gutxi dira azokara erosketak egitera datozen gazteak; gaurko gazteek ez omen dute sukaldetan aritu nahi, eta aurrez prestatutako jakiak askoz ere gehiago saltzen omen dira. Aditu dugu aurrez prestatutako jakiak salduko dituzten kontua, baina hori garestia izango da. Baina, tira, bakoitzak daki norbere poltsikoak zenbateraino ematen duen”.



EUGENIO ESNAOLA
jubilatua

“proiektuaren inguruan ez dut ideia handirik”

“Ikusita lehengoa zer zaharra eta zatarra zen, xarmanta da berria. Ixteko eta zabaltzeko aukera eskaintzen duen beiratea zoragarria da. Nire inguruan arrakasta handia izan du. Oro har, izugarri gustatu zait plaza bere osotasunean nola geratu den, kioskoarekin eta tabernaz inguratuta. Proiektuaren gainean ez dut ideia handirik... Sukaldaritza tailerra izango da, ezta? Asko etortzen gara plazara erostera. Oro har, beti jakineko baserritarrari egiten diogu eskaria bezperan, Whatsapez”.



BIBIANO ETXABE
jubilatua

“zaharrak bi ate baino ez zituen; hau argitsua da”

“Asko gustatu zait; modernoa da oso. Lehengoarekin alderatuta, alde ederrekoa da! Zaharrak bi ate baino ez zituen, eta berria argitsua da oso. Uste dut jendea erakarriko duela honek. Proiektuaren inguruan ez dakit ezer ere. Bai, azokan egiten ditut erosketak jubilatuta nagoenetik”.

Lehorretik itsasora

Olatu handien garaia da udazkena, eta surflarientzat, urteko sasoirik politena. Azpeititik kostaldera dauden kilometroak ez dira ezer batzuentzat. 📌📍 Ihintza Elustondo

Badu zerbait it"asoak, hitzez azaltzen hain erraza ez dena. "Olatu bat etortzen da aurrena, eta gero beste bat, eta gero beste bat... Olatu horietako bakoitza non sortu den eta nola datorren ikustea pixka bat mistikoa da. Bizirik dagoen zerbait da itsasoa, eta horrek harrapatu egiten du. Kresala adiktiboa da". Fernando Alberdik onartu du erabat harrapatuta duela surfak, ezin dituela eman egun asko uretan murgildu gabe. Lau lagun ditu inguruan, eta haiek ere ez dute kontrarik esan. "Probatu egin behar da zer den jakiteko", bota du azkenean haietako batek.

Aspaldiko partez elkartu dira Alberdi (1976), Denis Elorza (1978), Jon Kruzelegi (1982), Xabier Agirre (1982) eta Ibai Unanue (1998) azpeitiarrak. Besarkadak eman dizkiote elkarri, "hombre!" eta "bizi al haiz?" batzuk esanez; lagun onak diren seinale. Pentsa zenbateraino: duela hiru egun aita izan den Agirre ere agertu da hitzordura. Adin eta bizileku ezberdinak dituzten arren, afizio batek batzen ditu: surfak.

Bakoitza bere aldetik hasi zen kirol hori praktikatzeko, eta, pixkanaka-pixkanaka, kua-drillatxo osatu zuten. Egund, 10-15 laguneko taldea elkartzen dira. "Lehen, agian, gehiago ginen. Afaritxo bat antolatu eta 25 bat lagun-edo juntatzen ginen. Gertatzen dena da orain jende askok seme-alabak dituela, bestelako eginkizunak... Eta surfak denbora eskatzen du. Ezin duzu tenisaren edo palaren kasuan



Jon Kruzelegi, Denis Elorza, Ibai Unanue, Fernando Alberdi eta Xabier Agirre surflariak. ||Ihintza Elustondo

bezala, ordu erdiko tarte bat duzunean surfa egitera joan. Agian, joan nahi duzu, baina ez dago olaturik", adierazi du Alberdik.

Zailtasunak zailtasun, Azpeititik jende dezenteko joaten da olatuen bila; guztira, "ehun bat lagun" izango direla kalkulatu dute. Elorzaren arabera, surfak azken urteotan sekulako boom-a bizi izan du, eta hori nabaritu egi-

ten da. Unanue, taldeko gazteena izan arren, surf irakaslea ere bada, eta haren esanetan, bera baino gazteagoak diren azpeitiarrak ere animatu dira surfa ikastera. "Neskak ere badira tartean, eta horrek poza ematen du".

Bakoitzaren bizimoduak dela eta, nahi baino denbora gutxiago ematen dute elkarrekin surflariek. Baina behin elkarrekin daudela, atzera

begira jarri dira, eta azpeitiarren surf txapelketa antolatzen zuten garaiak oroitu dituzte. Hiru urtez-edo antolatu zuten, Zarautzen, eta haie-tako batean 50-60 lagun elkartzerantz iritsi ziren. Txapelketa egun pasa egiteko "aitzakia" izaten zela dio Alberdik. "Egun borobila antolatu zuten genuen: lehendabizi, surf pixka bat egiten genuen, eta, gero, afaria eta parranda", azaldu du Elorzak. Beti surflari berak irabazten zuela diote: Ugutz Karrerak.

Giro "ederra" izaten zuten arren, utzi egin zioten txapelketa antolatzeari, 2012 inguruan. "Utzi egin genuen ez delako erraza hara joan eta dena muntatzea, baimenak ere eskatu egin behar izaten genituen...". Elkarrekin hainbat bidaia egindakoak ere badira: "Munduari buelta eman diogu: Costa Ricara, Pana-



marra, Indonesiara, Marokora... joan gara. 2016an, hamalau azpeitiar joan ginen Maldivetara", azaldu du Alberdik.

Egun, batez ere, Orruara joaten dira surfa praktikatzera. Lehen elkarrekin egiten zuten Azpeititik harako bidaia, baina orain bakoitza bere kabuz joaten da, ahal duenean. Unanuen arabera, gehiago elkartzen dira "kasualitatez", geratu direlako baino. "Baina itsasoak elkartu egiten gaitu", erantsi du Alberdik.

20 kilometro besterik ez

Hogei kilometro inguru daude Azpeititik kostaldera, eta "hori ez da ezer", surflarien arabera. "Australian zein AEBetan ez zaie ezer iruditzen autoan ordu laurdena ematea surfa egiteko", adierazi du Agirrek. Elorzaren esanetan, "Europako olaturik onenetakoa" Mundakakoa da, eta jende askok ematen du ordubete autoan hara iristeko. "Azpeitia ez al da ba Urola Kosta? Horrek demostratzen du ez dagoela itsasoa hain urruti", bota du barrez Alberdik.

Kostaldera iristeko minutu asko behar ez diren arren, Azpeitian ez dago surfa hain errota; ez, behintzat, futbola, saskibaloia edo pilota bezainbeste. Unanuek uste du kulturak duela horren errurik handiena. "Hemen ez dago surfa egiteko kulturarik, beste herrialde batzuekin konparatuta". Agirreraren arabera, "kirol berria" da oraindik, eta horrek ere izan dezake eragina. "Frantziar surfa egiten hasi zirenetik bi edo hiru belaunaldi igaroko ziren, eta hemen, bigarren belaunaldia etorriko da".

Surfa egiteko garairik politena oraintxe dela diote, udazkena: "Marea biziak hasten dira, enbatak, olatu handiak...". Arriskutsua ez ote den galdetuta, "denean bezalaxe", bakoitzak ikusi behar duela uste du Alberdik. "Orain Unanue dago indartsu eta sasoiko, eta bera bidaltzen dugu olatu handietara. Gu zahar-tzen ari gara, eta kanpoan gelditzen gara", bota du umoretsu.

Unanueri urte osoa iruditzen zaio ona surferako; olatuak baldin badaude, egunero joaten da. "Aurreko batean Mundakan olatuak zeuden, eta eskolara joan beharrean, hara joan zen Ibai. Hau ez dakit kontatzeko modukoa den, baina...", bota du Alberdik. "Bai, lasai,

III "Surfak harrapatu egiten du beste kirol batzuk baino zailagoa delako; gauza errazak aspergarriak dira"
FERNANDO ALBERDI
surflaria

III "Hemen ez dago surfa egiteko kulturarik, beste herrialde batzuekin konparatuta"

IBAI UNANUE
surflaria

aitak harrapatu egin ninduen, beraz...", erantzun dio Unanuek erdi lotsatuta. "Hori da gogoia edukitzea", erantsi du Alberdik.

Maila batean edo bestean, denek maite dute surfa, eta uste dute kirol horrek duen zailtasunean dagoela giltza. "Beti esaten dut surfak harrapatu egiten duela, beste kirol batzuk baino pixka bat zailagoa delako. Gauzak errazegi ematen dizkizutenean, aspertu egiten zara. Hasieran kostatu egiten zaizu, baina ikusten duzu ondokoak lortu duela, eta esaten duzu: 'Berrirori saiatuko naiz!'", azaldu du Alberdik. Elorzaren arabera, berarentzat yoga bezalakoa da surfa. "Egun txar bat duzenean, ordu eta erdi pasatzen duzu uretan, eta berrituta ateratzen zara. Zergatik? Ez dakit, baina gauza bera gertatzen zaigu denoi".

Egun, pixka bat "kezkatuta" daude gero eta jende gehiagok egiten duelako surfa, eta askotan itsasoa "gainezka" egoten delako. "Autoan zoazenean eta txirindulari taldea parean tokatzen zaizunean bezala da", bota du Kruzelegik. Dena den, diotenez, aurkitzen dituzte momentua eta lekua, gustuko lekuan ez baitago aldaparik. Eta gustuko jendearekin ere, ez da egoten inoiz plan faltarik. "Orain zer egingo dugun? Aspaldiko partez, ogitarteko bat jan elkarrekin".*

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)

JON ESNAOLA
ARKITEKTO TEKNIKOA
M: (+34) 647 654 506
T: (+34) 943 15 7000
E: info@jonesnaola.es
www.jonesnaola.es

Zinea aitzakia

A diskideak tortura saio bat jasanda bezala uzten nau, buruan borraz jota bezala. Kultur politiken inora ezaz eta gehiegizko gastuaz kezkatzeko aldarrearekin etortzen zait. Ados agertzen natzaionean, kulturako gestoreei eta programatzaileei egiten dizkien kritiketan, ezagutzen baititut, neure burua irtenbiderik gabe gelditzen da, etsita. Kulturak, gaur, gezurretik asko izanda ere, duen egia puska hori, berdaderotasun hori, berezi ezin izanak nahigabetu egiten nau.

Nobela italiar bat erregalatu dit. Geroztik, bati baino gehiagori egin diet opari neuk ere, tartean Azpeitia honetako alkate jaunari. Luciano Biancardik idatzia da 1957an. Alkoholak eraman zuen egilea mende erdia harrapatu behar zuenean: Jasan nazazue -esaten omen zuen- gutxirako nago eta. Titulu ongi itsusia du nobela batentzat *Il lavoro culturale*, *El trabajo cultural* tituluaz argitaratu du Espainia alde honetan Errata Naturae argitaletxeak. Euskarara nahi niokeen itzulpenean *Kultur langintza* izenburu izateak lagunduko al dio?

Mundu gerratearen osteko Italiako hiri txiki batean, pobrezia utzi eta industria potentzia bilakatze garaian, gertatzen da. Kulturak ere garrantzia handia hartzen du eta idazle gazte, kazetari, irakasle, bibliotekariak... "behin betirako obra edo kontakizunari" ekiten diote. Arkeologoek kontaktzen zutena baino, guztiguztien jatorri bakarra etruskoengandik zetorrela zioena baino, kontakizun garaikideagoa. Kansas City bat nahi dute Italiako Toscanan. Eta gehiago, gehiago... baina guztia iragan hurbil horri egindako begirada ironikoarekin, iraupen luzeenera bezala suizidiora eraman gaitzak ironiarekin. Neure biografia osoari, harrotasun motiborik txikienari, hasia nago uko ironikoa egiten.

1979ko zinekluba

Ekintza ardatzen artean zinekluba agertzen



|||||||ramon etxezarreta|||

|||Neure biografia osoari, harrotasun motiborik txikienari, hasia nago uko ironikoa egiten

da. Azpeitiko ordukoa ekarri dit gogora. 1979a zen. Han ikusten genituen ohiko zinetara iristen ez zirenak. Zinemaldiak *Barrios y pueblos* izeneko sail bat zuen herrietan pelikulak eskaintzeko. Anton Ezeizarekin, Koldo Izagirrearekin eta Juanba Berasategiarekin nuen harremanaz baliatuz, Azpeitian aukera izan genuen. Zineklubak, kapitalekoen harrokeria jasanezina aitzakia, ez zigun onartu lan-kidetza. Leo Etxeberria, kultur zinegotzia, gogoz inplikatu zen ekimenean.

Felipe Cazals zuzendari mexikarra izan zen, arrakastaz, Soreasun *Canoa* filmarekin, aurrez Berlingo Zilarrezko Artza merezi izan zuenarekin. Urrestillako Kixkurraren tabernan afaldu eta ordu txiki-txikietan bukatu genuen hitzaspertua aipatu ditudan izen guztiok. Sa-soirako gizon aurrerakoi eta iraultzailea zen Cazals. Askok edan zuela dut gogoan eta "están ustedes llenos de maricones" esan zigula, nire harridurarako. Iraultza homofobak ez zuen agoniarik somatzen.*



40. URTEURRENA OSPATZEKO
PREZIO BEREZIAK

Etorri eta galdetu!



LASERRA:

Ezpain gaina 15€

Kokotsa 15€

Besapeak 25€

Iztartekak 25€

Hanka erdiak + iztarteak 65€

Hanka osoak + iztarteak 95€

Hanka erdiak 40€

Hanka osoak 75€

Iztartekak + besapeak 50€

Bularra + sabela 50€

Bularra 30€

Bizkarra 45€



L. Xaranki
ESTETIKA ZENTROA

PRESTA ZAITEZ UDAZKEN HONETAN
ZURE AZALARENTZAT DITUGUN
BERRIKUNTZAK SENTITZEKO


EREKI

EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

tel.: 943 08 06 88

www.eregi.eus

Tuba doinuak iristear

Tuba eta bonbardinoa gizarteratzeko helburuarekin antolatu dute Tuba Jaialdia zortzigarrenez. Urriaren 3an hasi ziren jaialdiaren barruko ekitaldiak, eta hilaren 17an bukatuko dira.  Uztarria

Tuba eta bonbardinoa gizarteratzeko asmoarekin, Tuba Jaialdia antolatu dute aurten ere. Egitasmoaren zortzigarren edizioaren barruko ekitaldiak joan zen urriaren 3an hasi ziren eta hilaren 17an bukatuko dira.

Aurten zenbait berrikuntzarekin dator jaialdia: Sanagustin kulturunean egingo dituzte ekintza gehienak, baina beste herri batzuetara ere iritsiko dira tuba doinuak. Hain zuzen ere, Lekeition eta Hernanin ere eskainiko dituzte jaialdiaren barruko saioak. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Meta proiektuarekin bat egin dute aurten antolatzaileek, eta diputazioak lagunduko du egitasmoa.

Kontzertu berezia

Erakusketarekin hasi zuten Tuba

||| DATUAK |||

- ||| Zer. Tuba Jaialdia.
- ||| Eguna. Hilaren 3tik 17ra.
- ||| Tokia. Azpeitiko Sanagustin kulturunea, Hernani eta Lekeitio.
- ||| Antolatzailea. Metal Boskotea, Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.


Jaialdiaren egitaraua, baina beste hainbat ekintza ere izango da. Antolatzaileen arabera, kontzertu "berezi bat" izango da aurten. Hilaren 12an kontzertu gastronomikoa eskainiko dute Euskadi Low Brassek eta Zigor Iturrieta *Txoriene* telebista saioko sukaldariak. Kontzertu horretarako sarre-ra 15 euro ordaindu behar da, eta ikusleek pintxoak dastatu ahaliko dute emanaldiaren bukaeran.★

||| VIII. TUBA JAIALDIA |||

8 • Tuba Eguna. Urriaren 14an izango da, eta entseguak eta kontzertuak izango dira.

8.360 euro. Proiektua babesteko finantzaketa kolektibo kanpaina hasi dute Goteo.org atarian.★



Iazko Tuba Jaialdi nagusiko irudia.  Uztarria

||| BESTERIK |||

1 Matxismoa tabernetan, saioa Matxismoa tabernetan solasaldi-tailerra izango da. Ondoren, mokadutxo eta Erraiak taldearen kontzertu akustikoa izango dira.

||| Eguna. Hilak 18 (asteazkena).
||| Ordua. 19:00 ||| Tokia. Orkatz kultur elkarte.

2 Txirri, Mirri eta Txiribitonen emanaldia

Patxistein doktorea emanaldia eskainiko dute pailazoek. Saioa grabatuko dute, DVDan ateratzeko.

||| Eguna. Hilak 21 (zapatua).
||| Ordua. 17:00 ||| Tokia. Soreasu antzokia.
||| Antolatzailea. Kulturaz.

3 David Guapo, Soreasun

#quenonosfrunjanlafiesta II bakarrizketa saioa eskainiko du.

||| Eguna. Hilak 28 (zapatua).
||| Ordua. 22:30 ||| Tokia. Soreasu antzokia.

4 Kros Mistoa

Euskal selekzioaren aldeko proba 6,2 kilometrokoa izango da. Aurrez eta egunean bertan eman ahal izango da izena.

||| Eguna. Hilak 28 (zapatua).
||| Ordua. 18:30.
||| Antolatzailea. Ikasberri kirol elkarte.★

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

ERREFORMAREN 500.URTEURRENA

Maitasunaren Jaialdia



GONBIDAPENA

2017ko
Urriak 14
Larunbata
18:30ean

**DOAKO
SARRERA**

EGITARAUA:

16:00etan erakusketa biblikoaren irekiera

17:00etan konferentzia: "Erreforma Nafarroan"

18:30ean jaialdia: Koreografia, testigantza,
musika eta mezu ebanjelikoa.

Mr. FE eta HATIKAN taldeek hartuko dute parte.

Mr.FE taldea



HATIKAN taldea



LEKUA: SOREASUANTZOKIA - AZPEITIA

Antolatzaileak:



CENTRO DIANGÉLICO
BETEL
BEGUNE EBANJELIKOA



CEPV-EHKE

BETEL Biegune Ebanjelikoa, Artzabiz etorbidea, 51, Azpeitia

Jarri hemen
zure publizitatea

||| **HITZ GEZIDUNAK** |||||

	Deitura	Okokoak	Eleak, berbak	Denbora luzean	Ez koldar
	Akura	Harroak	Artsenikoa	Jainko egjiptoarra	
	Esaten ari zara				
	Marinelen ohea				
Etsai egin	Arrantza gunea		Azkenekoa	Artsenikoa	
Etxalarrekoa	Izena		Hesola	Kontsonantea	
Bigunak				Txakur	
Axolaga-beak				Toles	
				Bokal mehea	Kontsonantea
				Jatorri atzizkia	Edo
3			Txerri arra		Atx!
Moztuak			Ergatiboa-ren marka		
				Oholtza	
				Kontsonantea	
... dakarrena, ... daroa			Segi		

Egilea: Luma

* Merkataritza teknikari azpeitiarra

||| **SUDOKUA** |||||

			4		7	1	8
7				1	3		
8		6		3			
	6	2			9		3
1		9			8	4	
			3		6		7
		8	4				5
2	3	1		5			

|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Urriak 18 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||

1 ENDIKA...

2 ZER EGIN DU?

|||BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

|||HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||

HITZ GEZIDUNAK

I	A	R	R	V	J	●	K	A	R	U	●
A	L	U	A	T	●	K	A	N	E	T	E
●	A	Z	E	K	A	●	I	I	I	●	●
T	●	I	●	K	A	R	A	B	A	Z	●
R	●	K	A	R	U	M	A	S	A	●	●
A	R	A	R	T	A	R	A	L	A	X	E
S	A	●	Z	●	A	L	A	K	●	E	●
U	Z	A	T	S	O	I	O	●			
A	U	R	I	V	A	K	O	L	A		
●	L	●	H	●	O	●	A	●			

SUDOKUA

6	8	4	7	4	8	9					
5	3	1	9	2	4	8	7	6	9	2	3
7	2	7	1	8	6	2	5	9	4	3	8
6	4	8	3	2	7	3	1	5	9	6	4
3	1	5	6	4	2	8	7	9	6	4	3
4	6	2	1	8	5	9	7	3	5	9	4
8	1	6	2	7	3	5	9	4	3	5	9
7	4	5	8	9	1	3	6	2	7	1	8
9	2	3	5	4	6	7	1	8			

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

- 1 Alferrekoa
- 2 Kanika

|||UZTARRIAREN ABUZTUKO LEHIAKETA|||||

IRABAZLEA



Monse Aramendi Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 197. lehiaketaren irabazlea. Kutxillo urdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.



Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

ELKARRIZKETA Pello Arrue 'Pellanbre' musika sortzailea

“Abestien oinarria tekno elektronikoa da, eta kantatzeko modua punk-oi doinuena”

Bi dira Pello Arruek (Azpeitia, 1995) sortutako musika estilo "berritzailearen" osagaiak: punk-oi doinuak eta musika elektronikoa. Errezetaren emaitzari *Teknoi* izena jarri dio, eta Pellanbre da azpeitiarraren izen artistikoa. Sei abestiz osatutako maketa kalera-tuko du Interneten, eta dagoeneko entzun daiteke egindako lanaren aurrerapen bat.

Nolatan otu zitzaizun halako esperimientua egitea?

Gazteagoak ginela, aurreneko parrandetan-eta, Txarrantxa zabalik zegoen garaian, musika 'makarra' entzuten hasi ginen. Orduz geroztik, beti entzun izan ditugu punk-oi doinuak. Urteek aurrera egin ahala, musika elektronikoa entzuten ere hasi ginen. Horregatik, gehien gustatzen zaizkidan bi musika estiloak nahastea pentsatu nuen, eta horren emaitza dira egindako sei abestiak.

Zer ezaugarri ditu sortu berri duzun musika estiloak?

Abestien oinarria tekno elektronikoa da, eta kantatzeko modua punk-oi doinuena. Ahotsaren



Pello Arrue Pellanbre abestiak grabatu dituen estudioan. | Maialen Etxaniz

melodia punkia da. Ez dut aurrez halakorik entzun, eta horregatik uste dut berritzailea dela. Ziur nonbaiten badela nik izan dudana harrikada bera izan duen pertsonarik, baina nik, behintzat, ez dut ezagutzen.

Zein talderen abestiak moldatu dituzu?

La Pollaren bi, Hell Beer Boysen bat, Habeas Corpusen bat eta Animales Muertosen beste bat.

Horiez gain, Non Serviumek bertsionatutako Vomito taldearen kantu bat ere moldatu dit. Entzuten ditudan taldeak dira guztiak, eta nahasketen mundu honetan izugarrizko esperientzia ez dudanez, moldaketak egiteko kantu sinpleak edo melodikoak nahi nituen. Bestalde, jendeak ezagutzen dituen abestiak izatea ere nahi nuen.*

*| Elkarrizketa osoa uztarria.eus-en

EFEMERIDEAK

1675

Sagardo ekoizpena. Urte hartan sagar gutxi jaso zenez, saltzeko sagardo egin nahi zutenei agindu zieten erdia urik gabe egiteko eta beste erdia ura nahasturik.

1811

Haur bat aurkitu zuten. Barrenola baserriaren inguruan utzitako neskatu bat aurkitu zuten, gauean.

1918

Esklabetako kometua. Esklaben komentuen lehen harria jarri zuten.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

|| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|| Argitaratzailea: Uztarria.*

BIDEOAK



Txisteratik eguna iragartzeko bideoa.*

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85

Paradoxa

Egun, elikadura arloan, osasun sailak egiten dituen kontrolak gero eta handiagoak dira. Modu seguruagoan jaten dugu, eta, beraz, elikadura arriskuak ikaragarri murriztu dira. Alabaina, ez al zaizue iruditzen gero eta seguruago jan arren, ez dugula batera osasuntsu jaten? Hau da, gizakiaren historian okerren jaten dugun garaian gaude, baina hori bai, seguru! Paradoxa dirudi.

Elikadura segurtasuna ez da kalitate nutrizionalaren sinonimo. Osasun ikuspuntutik janari bat segurua dela esateak ez du esan nahi osasuntsua denik. Hau da, McDonald'seko menu azkar horietako bat janda intoxikatzeiko arrisku txikia izango duzu, baina ez zara ondo elikatzen ariko. Bizitzeko estiloa eta elikatzeiko modua zenbait minbiziren, diabetesaren edo gaixotasun kardiobaskularren errudunak dira.

Supermerkatuetan 'osasuntsuak' direla dioten etiketekin (bitamina eta mineralekin indartuak, burni ugari dutenak...) produktu ugari ditugu. Estrategia horrek kontsumitzaileak asko erakartzen ditu, eta askotan, gehienetan ez esateagatik, eror-tzen gara. Bada, horixe, produktu asko eta benetako gutxi.

Bertako eta garaiko janariak ez dute kalitatearen zigorik behar! Osasunaren-tzat egin dezakezun onena benetako janaria kontsumitzea da, geurea!*



aitziber aizpuru

MARIA JESUS ODRIOZOLA autobuseko begiralea



1. 22 urtean ume asko ezagutu dituzu...

Eta guraso egiten ikusi ere bai, eta haien umeekin nabil orain.

2. Umeak beti ume?

Hasi ginenean arau berriak ezarri behar genituen, eta... Baina bai, umeak beti ume.

3. Eta autobusak?

Itoginak zituzten zahar batzuetan ere ibilia gara!

4. Ikasturte hasiera al da gogorrena?

Ume txiki hasiberriak, gela aldaketak... Lehendabiziko bi asteak pixka bat gogorrak izaten dira, bai.

5. Umerik 'galdu' al zaizu?

Ez. Autobusa goitik behera begiratzen dugu beti.

6. Zer sumatuko duzu faltan?

Umeen ateraldiak, ematen duten bizipoza.

Mailo Oiarzabal

IRENE ALTUNA
LORACENDA
Loiola Bide, 26 Tel: 943 81 51 87
www.iritanacenda.com

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Araia, 5 AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

Alar
merceria
Loiolako Inazio Hiribidea, 9
Tel: 688 81 81 78

Koh Tao
OSAGARRIAK
For. Eibizkoa, 3 • Tel.: 629 660 193
20730 AZPEITIA (Gorbeia)



ORDULARI
Jose de Arizte, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

uba
Abokatuak
Finantza
Lanbide
Bantak
Gestioi lanak
Finantza administratzaia
Gestio Inmobiliaria
Tel: 943 157 020 Fax: 943 157 077
Euzkoan, 41 • 20730 AZPEITIA

KIRURI
K
JATETXEA
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfn: 943 81 00 88
Fax: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA DISENU ESKOLA ELKARTEA
● **Marraskia eta eskulanak** (haurrek) 17:30 - 19:00
● **Pintura** 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30
● **Talia** 18:30 - 20:00
Jose Arizte kalea, 3
943 81 28 08
arizteadivinu@gmail.com
Matrikula urte osan zabalik

50 urte, “zuei esker”

Ederti dekorazio dendaren 50. urtemuga da aurten, eta herritarrei eskerrak eman dizkiete haren jabeek.   Olaia Iraola



Mende erdia igaro da Ignacio Agirre (Azpeitia, 1922) eta Karmen Eizmendi (1927, Azpeitia) senar-emazteek Enparan kalean Ederti dekorazio dendako atea ireki zituztenetik. Egun dekorazio denda dagoen lekuan tailer bat zegoen lehen, eta bertan egurrarekin egiten zuten lan; tartean, Agirrek, bere gurasoen negozioa baitzen. Ignacio eta Karmen senar-emazteei dekorazioa asko gustatzen zitzaiera eta, mundu horretara murgildu eta negozio bat sortzea erabaki zuten: Ederti. Hitz horrek

“ederra jaiotzen den lekua” esan nahi zuela azaldu zien lagun batek, eta asko gustatu zitzaizen.

Gaur egun, Agirreren eta Eizmendiren alaba Karmen Agirrek (Azpeitia, 1950) eta bere senar Angel Larrañagak (Azkoitia, 1948) daramate negozioa aurrera. Duela mende erdi, dekorazio ikasketak egiten ari zen Agirre Erroman (Italia), eta horiek amaitzean etxera itzuli zen. Ondoren, dekorazioaz gehiago ikasteko helburuarekin, Donostiara joaten hasi zen larunbatero-larunbatero.

Guztira, 48 urte daramatza Agirrek Edertin lanean, eta gogoan ditu hasierako uneak: “Hasierako urteak oso gogorrak izan ziren, anai-arreba guztiok ikasten ari ginen, eta ahal zen heinean laguntzeko ahalegina egiten genuen”. Hark azaldu duenez, Azpeitian dekorazio denda bat zabaltzea bitxia iruditu zitzaion jendeari, ez baitzen oso ohikoa garai hartan. Agirre lanean hasi eta urte batzuetara, Larrañagarekin ezkondu zen, eta hura ere dekorazio mundura murgildu eta dendan hasi zen lanean.

Bertan merkatari elkarteak eta Azpeitiko Udalak, 50.urteurrena medio, oroigarria eman zieten dendaren jabeek abuztuan. “Sorpresaz itzela izan zen guretzat, ilusio handia egin zigun opariak. Ez genuen ezer espero”, azaldu dute Agirrek eta Larrañagak.

Eskaintza bera, era desberdinean

Larrañagak eta Agirrek azaldu dutenez, duela 50 urtetik gauzak asko aldatu dira. Jendeari “etxea ondo” edukitzea betidanik gustatu zaion arren, lehentasunak aldatu egin dira. “Orain, dirua bidaietan edota beste zerbaitetan gastatzea gustatzen zaio jendeari”. Garai batean, berriz, etxea altzairu onekin atontzeko joera handiagoa zegoen, dekoratzaileen arabera.

Garai batetik hona planoak egiteko modua ere aldatu da Edertin; izan ere, lehen akuarelekin egiten zituen lan horiek Agirrek. “Kolorrez kolore, estanpatuz estanpatu, etxea nola geldituko zen erakusten zien bezeroei, argazkiak ziruditen bere planoek”, azaldu du Larrañagak. Orain, akuarelak erabiltzen ez dituen arren, planoak denbora asko eta gogo handia eskaintzen jarraitzen du dekoratzaileak.

Hasierako urteetako moduan, dendan denetik pixka bat edukitzen ahalegintzen direla azaldu du bikoteak. “Lehen, denetarik edukitzen genuen; egun, ez dugu hainbeste produktu dendan, eta katalogoak izaten ditugu”. Askotariko nordikoen, alfonbren, oihalen... inguruko katalogoak dituzte, horrela, bezero bakoitzari zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen diote. Lehenik eta behin, erosleen gustuak ezagutzen dituztela azaldu du Agirrek: “Pertsona bakoitza ezberdina da, eta hasiera-hasieratik haren gustuak, beharrak eta ideiak ezagutzen ditugu. Behin horiek jakinda, prozesua martxan jartzen dugu: ideiak, planoak eta etxearen banaketa proposatzen dizkiogu”.

Gertuko harremana

Bezeroekin harreman estua dutela jakinarazi dute Edertiko jabeek; are gehiago, urte hauek guztietan lagun asko egin dituztela. Gainera, askotan, beren bezeroak izan diren



1. Ederti dekorazio denda Enparan kalean zabaldu zuteneko irudia **2.** Agirrek akuarelekin marraztu izan zituen planoetako batzuk. **3.** 50. urteurrena dela eta, saltokiaren erakusleihoan 50 urte, zuei esker leloa jarri dute.

seme-alabak joan izan zaizkie beren etxeak ere diseinatzeko eskatzera. “Asko pozten gara bezeroen senitartekoak etortzen direnean, seinale ona da hori”. Larrañagak Agirren aitaren esan bat du gogoan: “Bezeroak irabaztea zaila da, eta galtzea erreza”.

Gainera, Ederti Azpeitian ezaguna izateaz gain, inguruko herrietan ere badute haren berri. Dekoratzaileek jakinarazi dutenez, inguruko herritarrei ere saldu izan dizkiete beren produktuak eta zerbitzuak; besteak beste, gasteiztarrei, oñatiarrei, donostiarrei, beasaindarrei... Euskal herritarrei saltzeaz gain, behin, altzari batzuk greziar bati ere saldu zizkietela jakinarazi dute dendaren jabeek. “Zestoako bainuetxera etortzen zen, eta behin dendara etorri eta altzairuak erosi zizkigun. Gogoratzen naiz itsasontzira kaxak sartu eta sartu nola ibili ginen”, azaldu du Agirrek.

Bezeroei esker

Azpeitiarrengatik zein inguruetako herritarrengatik izango ez balitz, Edertik 50 urte ez lituzkeela beteko azaldu du bikoteak. Hori

horrela, 50.urtemugan, 50 urte, zuei esker leloa jarri dute erakusleihoan. “Lan asko egin dugu, bai, baina herritarrek ondo erantzun izan digute beti”, jakinarazi du Larrañagak. “Bezeroei esker bete ditugu 50 urte, eta asko zor diegu haiei”, gehitu du Agirrek.

50 urteren ostean dendak irekita jarraitzearen gakoa “bezeroak ondo zaintzea” dela azpimarratu dute senar-emazteek: “Guretzat guztia ginetik daude bezeroak, eta horiek ondo zaintzen ahalegintzen gara, baita zer nahi duten ahalik eta ondoen ulertzen ere. Erosleen azalean une oro jarri izan gara eta hori nabaritu egin dute gure ustez”.

Bikoteak dio “baloratuak” sentitzen direla erosleek ondo erantzun baitiote pazientzia, gogo eta ilusio handia eskaintzen dioten eguneroko lanari. “Urte asko igaro ditugu dendan, eta asko maite dugu”.

Mende erdia pasatu izanagatik, dendak zabalik jarraitzen du, eta han bitzako une bakoitza ondo gogoan gorde dute Agirreraren eta Eizmendiren, Edertiren sortzaileen, ondorengoek. “Momentu ahaztezinak bizi izan ditugu”, azpimarratu dute.*

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 16 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdetik:
943 16 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Arceve, 17
Tel. 943-810954
AZPEITIA

Itzi Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Direktiboak besterik dago ez dagoenak

AIZPURU AUTOAK
FITZATAN DITZATE

Tel: 543 81 23 69
Fax: 543 81 22 81

aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net

Arrizkoa 17, 20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01

Igerilekua	81 41 21	EAJ	81 55 70
Emakumeen Txokoa	15 70 55	Sortu	15 72 00
Ertzaintza-Azkoitia	083780	EA	81 00 11
Baigera I	81 51 71	Aralar	64 42 59 95
Baigera II	81 23 89		
Epaitegia	02 51 91		
Ingurugiro Etxea	81 24 48		

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00		
Anbulator. larrialdiak	02 54 01		
Eguneko zentroa	15 74 96		
Asepeyo	81 44 00		
Gurutze Gorria	85 32 97		
DYA-Donostia	46 46 22		

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58		
Hitza (Azpeitia)	81 38 41		
Hitza (Zarautz)	89 00 17		
Azpeitian Zer?	08 06 88		
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35		
Berria	943 30 40 30		
Gara	943 31 69 99		
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06		
DV (berriemailea)	610 81 29 12		
Argia	943 37 15 45		
Arrate Irratia	943 12 01 73		
Euskadi Irratia	943 01 23 00		
ETB	943 01 17 05		

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00		
-------	----------	--	--

FARMAZIAK (URRIA)

1-18-20-25
Jacome (Azpeitia).
943 080258

4-12-16-21-22-27
Beristain (Azpeitia).
943 811949

2-6-7-8-11-19-26-30
Eizagirre (Azpeitia).
943811274

5-10-17-24-28-29
Alberdi (Azpeitia).
943815974

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30
UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da
ANBULATORIOA ||| Egun osoz irekita egoten da
IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpokoak: ekainera arte itxita
KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00
LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuaren: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita.
GAZTELEKUA ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



PLAZAKO KOMUNA.

Azoka Plaza berritu ostean, zabalik dira plazaren kanpoaldeko komun publikoak. Plaza berritu aurretik kioskoaren azpian zeuden komunak, baina haiek ez zituzten irisgarritasun neurriak betetzen.

3-9-13-14-15-23-31
Aranburu (Azpeitia).
943 811949

GAUEZ, URTE OSOAN
Beristain (Azpeitia).
943 811949

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

IRATI ARANGUREN

Erromeriazalea

“IGANDERO JOATEN NAIZ ARISTERRAZUKO ERROMERIARA”

Autoa hartu eta Aiako Aristerrazura joaten da igandero, hutsik egin gabe, dantzara. Hil honetan hasiko da erromerien denboraldia, eta pozik dago. 📌 **Ihintza Elustondo**

Noiz joan zinen lehen aldiz Aristerrazura?

16-17 urte izango nituen. Handik urtebetera berriz joan nintzen, eta ordutik aurrera, azken 5-6 urteotan, igandero joan naiz.

Zer dauka Aristerrazuk berezia?

Lehen, igandero egiten ziren erromeriak hemen inguruan, baina denak galdu dira; Aristerrazukoa da gelditzen den bakarra.

Zerk bultzatzen zaitu hara joatera?

Trikitia entzutea eta dantzatzea betidanik gustatzen zait, eta, gainera, lagunarte polita dugu han; kuadrillatxo osatu dugu.

Zu bezalako gazteak joaten al dira?

Orain arte, betikoak joaten ziren, baina azken urteotan gero eta gazte gehiago joaten da.

Inoiz ahaztuko ez duzun erromeria bat?

Dantza irakaslea naiz, eta nire ikasle askok ez zekiten Aristerrazu existitzen zenik ere. Horregatik, haiek hartuta joan nintzen behin erromeriara, haiei nire afizioa transmititzeko. Esfortzua egiten ari gara batzuk horretan.

Zein pieza gustatzen zaizu gehien dantzarako?

Fandango zalea naiz, arin-arina eta dantza lotua gutxiago gustatzen zaizkit.

Dantza eskatzen al du jendeak oraindik?

Bai, mutilak neskari, neskak mutilari, gazteak zaharrari... Edozeinek edozeini.

Bikotea ondo ulertzeko?

Elkar ulertzea da garrantzitsua. Zirikatze-ko aukera ematen du horrek.

Zein trikitilarirekin egingo zenuke dantza gustura?

Izerrekin. Gure aitonak trikitia jotzen zuen, osaba batzuek ere bai, baina nik horietako inor ez dut ezagutu plazan jotzen. Hirugarren belaunaldikoa den Izer lehengusua bakarrik ezagutu dut, eta horregatik da berezia.

Igandero hara joanda, astelehenik izaten al duzu?

Egunari ematen diozun bukaeraren arabera. **Zertarako balio izan dizu Aristerrazura joateko ohiturak?**

Afizio bereko jendea ezagutzeko aukera eman dit. Jendeak uste du mundu itxi tradizional bat izango dela, baina niri mundua zabaldu zait Aristerrazun.*



1. Irati Aranguren panderoarekin. 2. Aranguren dantzan, Aristerrazuko erromeria batean. 3. Azpeitiarrak txikitatik du trikiti eta erromeria afizioa.



Eta gu hemen

Saso batean, gazte ginenean, "iaz" zen gure denboraren neurria. Gero, konturatu gabe, "orain dela bi urte", "orain dela bost urte" esaten hasi ginen, barrua trankil. Geroago, "orain dela hamar urte" esaten hasi ginen, baina ikaratu gabe oraindik. Hurrena, "orain dela hogeitau urte", eta denbora ez zela alferrik joan pentsatzen hasi ginen. Gaurko egunean, harako Kaskazuri bertsolariaren posturan gabiltza. "Orain berrogei urte, gure Errenteri, kasik esan liteke, ez zala ageri"... kantatzen zuen Kaskazurik, eta kaskazurituta gu, berak bezala kantatzen ez, baina esaten dugu: orain dela berrogei urte.

Orain dela berrogei urte izan ginen estreinakoz Diadan Bartzelonan, katalanen aberri egunean. Finean, manifestazio handi bat, jendetsua, alderdi batzuk hemen, beste batzuk han, senyera mordoa, ikurrinaren batzuk, independentzia oihu mordoa... Euskal Herrian ere garai hartan egiten ziren moduko manifestazioa. Diada.

Aurten itzuli gara, joan beharra zegoen, erreferendum atariko Diada zuten katalanek, Diada genuen Espainiatik aparte amets egiten dugun euskaldunok. Eta hantxe gu. Eta hantxe haiek, katalanak, baina nola, gero! Eta zenbat, gero! Eta haien algara, gero! Zer zen hura, bada!

Goizean goizetik, jendea, familiak, senar-emazteak, nobio-nobioak, nobio-nobiak, nobia-nobiak, atso eta agure, attitte-ama-mak, haurrak, neska-mutikoak, oilo-oilanda gazteak... senyera hartuta, Diada ospatzera, erreferenduma zelebratzera, independentzia gozatzera. Herri bat, oso-oso, goizetik arratsaldera arte, Bartzelona erdigunea guztiz hartu zuena, boza emateko pozak, independentzia hoska. Haien patxada, poza, ilusioa, animoa, indarra, sendotasuna. Herri bat martxan, lekuan bertan ere, han ez zen-eta mugimendurik. Gurutze handi bat osatu zuten hegotik iparrera, ekialdetik mendebaldera, eta hantxe Herrialde Katalanetako lau



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Diada zuten katalanek, genuen Espainiatik aparte amets egiten dugun euskaldunok

kornurretatik etorritako jendea, antolatzaileek agindutako lekuetan geldituta, kantu eta orro, Katalunia goratzen, botoa ospatzen, argazkiak ateratzen, senyerak astintzen, "Visca Catalunya!"-ka, "I... Inde... Independencia!"-ka... Seguru, guztiz animoso, eta pozik, batez ere pozik, alegre, beldurrik gabe.

Nahaia zapaldu nahian

Ikusi dugu zer etorri den Espainiako Gobernuaren aldetik, erantzun zoroa, guardia zibilak eta Polizia Nazionala bertara bidaltzea, salbuespen egoera, estatu kolpea, inperioaren lege makurrean. Arrazoirik ez, indarrarena besterik. Eta segi, guardia zibilak, asko boluntario –Otaegi fusilatuta zuten haiek bezala, boluntario!–, polizia nazionalekin batera, diktaduraren legean, egurrean, errepresioa lege, arau eta aginduta, herri baten parte baten gehiengo baten nahia zapaldu nahian. Txile bat, Argentina bat, Venezuela bat... Katalunian.

Eta gu hemen, beti gu hemen, gure txanda ailegatu arte. Ikusi dugu zer datorren. Ikasiko ahal dugu!*





IRUDHITZEN

LEHIAKETA, MARTXAN



informazio guztia: uztarria.eus webgunean

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:30
Ostiraletan: 08:00-19:00

GRUPO
 horzkari
hortz osasun klinika

Nabarro larreategi 1, behea
20200 Beasain

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 Azpeitia
Tel. 943 089 089

ORDUTEGIA

astelehenetik ostegunera
08:15-13:00
17:00-20:00
ostirala eta larunbata
08:15-13:00

GAZTA

txapeldunetan
txapelduna

MAUSITXA(Elgoibar)

ESKAINTZA BEREZIA:

Bertako intxaurrak

3,5 EURO/KG



**ZAZOZ PRODUKTU
BERRIAK PROBATZERA!**

Kontserbetan
aukera zabala



- Urdaiazpikoa
- York
- Txorizo Panplona
- Txorizo iberikoa
- Xolomo freskoa
- Denetariko fruta eta barazkiak
- Garbiketako produktuak